

ALKATEAREN MEMORIA

1. SARRERA.
2. UDAL AURREKONTUAREN DATU OROKORRAK.
 - Datu orokorren laburpena:

	2017 Aurrekontua	2016 Has. Aurrekont.	Aldea 2017-2016
Gastuak Guztira:	25.714.326,00	26.576.356,00	-862.030,00
Sarrerak Guztira:	25.714.326,00	26.576.356,00	-862.030,00
Gastu arrunta:	23.236.157,00	22.733.086,00	503.071,00
	90%	86%	
Sarrera Arruntak:	25.247.626,00	24.986.256,00	261.370,00
	98%	94%	
Inbertsioak:	1.985.350,00	3.206.441,00	1.221.091,00
Aurrezpena: Sarrera Arrunta-Gastu arrunta	1.591.457,00	1.723.170,00	-131.713,00
	6,3%	6,9%	

2017rako proposatzen den aurrekontua, 2016 urtekoarekin alderatuz gero, kopuru orokorretan murriztagoa da. Kontuan izan 2016ko aurrekontuan Galarreta eremuko hirigintza aprobetxamenduen sarrerak jaso zirela. 2017rako halakorik ez dagoenez, horrek ezinbestean gastu ahalmenaren murrizketa eragin du.

Hala ere, gastu eta zerbitzu arruntetan ematen den kopurua igo egin da. Inbertsio gastua murriztu egin da, izan ere, 2016ko aurrekontuetan kiroldegiaren inbertsioa jaso baitzen.

3. AURREKONTUAREN AZALPENA. SARRERAK.

- Kapitulukako laburpena:

SARRERAK KAPITULUKA	2017 AURREKONTUA	2016 Has aurrek	Aldea 2016-2015
Zergak	6.334.598,00	6.167.395,00	167.203
Eraikuntza Zerga	217.750,00	353.000,00	-135.250
Tasak	5.555.390,00	5.620.056,00	-64.666
Transf arruntak	13.073.838,00	12.785.755,00	288.083
Ondare sarrerak	66.050,00	60.050,00	6.000
Hirigintza sarrerak	50.062,00	1.057.000,00	-1.006.938
Kapital transf	6.538,00	8.000,00	-1.462
Finantza aktiboak	100,00	100,00	0
Mailegua	410.000,00	525.000,00	-115.000
GUZTIRA	25.714.326,00	26.576.356,00	-862.030

- Zerga eta tasak: urriaren 25eko udalbatzarrak onartutako ordenantza fiskalen tarifa igoera kontuan hartu da. 2016 urterako egindako aurreikuspenak aztertu dira eta beharrezko ikusi diren egokitzapenak egin. Besteak beste: balio katastral berrien eragina jaso da; Kiroldegiko sarrerak doitu dira, igerilekua iraila bitarte itxita egongo baita; lurzorua okupazioan 2016 urtean aurreikusten den desbiazioa...
- Udal Finantzaketarako Foru Funtsa: laugarren kapituluaren jasotako transferentzi arruntak- besteak beste Foru Aldundiko Ogasun Sailak Udal Finantzaketarako Foru Funtsarako 2016ko urriaren egindako aurreikuspena jaso da. Horren arabera, 2016 urtean likidatzea aurreikusten den kopuruaren gain %3,56ko igoera proposatzen du Aldundiak. Halabaina, ikusita 2016 urterako urte hasieran egindako aurreikuspena ez dela bete (desbiazioa -%1,55) , eta egoera ekonomiko ezegonkorak eskatzen duen zehaziaz, Aldundiak aurreikusitako kopurua baino %1 gutxiago jaso da aurrekontuetan.
- Hirigintza sarrerak: Hirigintza sailak egindako aurreikuspenak hartu dira oinarri. Hori horrela, bigarren kapituluaren (zergak) eta seigarren kapituluaren (Hirigintza aprobetxamenduak) osatu dira. Alde nabarmena dago 2016 urtearekiko, batetik, hirigintza jarduna motelagoa izango delako eta horrek sarreretan eragina duelako, bestetik, 2016 urtean izan ditugun ezohiko diru-sarrerak -Galarreta eremua- ez baitira errepikatuko.
- Mailegua: urtero bezala, inbertsioak finantzatzeko mailegua eskatzea aurreikusten da. Aurrekontu Egonkortasun eta finantza iraunkortasunari buruzko arauak egonkortasun helburua bete ahal izateko ezartzen duen gehienezko kopurua ezarri da, 410.000 euro.

4. AURREKONTUAREN AZALPENA. GASTUAK:

- Kapitulukako laburpena.

GASTUAK KAPITULUKA	2017 AURREKONTUA	2016 Has aurrek	Aldea 2016-2015
Langileria gastuak	8.005.063,00	8.335.107,00	-330.044,00
Ond. arrunten eta zerb.en gastuak	10.674.599,00	9.967.405,00	707.194,00
Gastu finantzarioak	19.000,00	17.574,00	1.426,00
Transferentzia arruntak	4.286.437,00	4.253.068,00	33.369,00
Kreditu Globala	251.058,00	159.932,00	91.126,00
Inbertsio errealak	1.985.350,00	3.206.441,00	-1.221.091,00
Kapital transferentziak	72.707,00	106.729,00	-34.022,00
Aktibo finantzarioak	100,00	100,00	0,00
Pasibo finantzarioak	420.012,00	530.000,00	-109.988,00
GUZTIRA	25.714.326,00	26.576.356,00	-862.030

LANGILERIA GASTUAK:

- Aurrekontuaren eranskinean -langileen zerrenda- jasotzen dira aurrekontuan jasotako lanpostuak, izaera eta bakoitzaren urteko kostua. Langileen lanpostuen zerrendan azken urtean egokitzapen handiak egin dira. Horiek guztiak jaso dira.
- 2016 urtearekiko kopuru diferentziaren arrazoa zera da, 2016an lanpostuen balorazioa egiteko 300.000 euro aurreikusi zirela.
- Estatuko Aurrekontuen Legea onartu gabe dagoenez, 2017 urterako ez da soldata igoerarik aurreikusi. Halabaina, kreditu globalaren 5. kapituluaren %1eko igoerari dagokion kopuru bat kontsignatu da, aurrerago Estatuak igoerarik baimenduko balu, igoera finantzatu ahal izateko.

ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUEN GASTUAK:

- Kapitulua honetan oro har 707.194 euroko igoera aurreikusten da. Igoera horretan biltzen dira, datorren urterako aurreikusten diren zerbitzu kontratazio edota erosketak berriak, edota gaur egun indarrean dauden hobekuntzak. Hauek dira igoera nabarmenenak, 2016 hasierako aurrekontuan jasotako kopuruekiko:
 - 182.000 euro handitu beharko da hondakinen bilketa partida GHK-k 2016 urterako onartutako bio-hondakin eta errefusa tarifa igoeraren eraginari aurre egiteko.
 - 57.819 euroko igoera, Ingurugiro sailak burutu beharreko azterketa teknikoetarako.
 - 56.000 euroko igoera Sorosleen kontratua kiroldegian, 2016an egindako kontratazio berriaren baitan.
 - Administrazio orokorraren alorrean hainbat ekimen berri landuko dira: 50.000 euro udalbatzarretan bideo-akta sistema ezartzeko; 20.000 euro datu babesaren auditoria azterketa eta formazioa bideratzeko.

- Udal eraikinen garbiketa kontratua zerbitzu berrietara egokitzeko igoera.
- Halaber, Administrazio eta funtzionamendu arrunteko hainbat partida egokitu dira 2016ko gastu maila ikusita: Administrazio orokorreko kontratuak, Informatika kanpo lanak, Bulego ekipoen mantenua, Iragarki ofizialak...

TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Aurrekontuaren eranskinean zerrendatuta daude Udalak banatuko dituen diru-laguntza guztiak eta bakoitzaren izaera (zuzena ala norgehiagoka bidezkoa, hitzarmen bidezkoak).

- Kapitulu honetan emango den aldaketa nagusia, BETERRI eskualdeko udalek sinatuko duten lankidetzaren hitzarmenari dagokio. Horren baitan, Hernaniko Udalak 128.512 euroko diru aportazioa egingo du. Kopuru horretan biltzen da azken urteetan eskualdeko enplegu planerako bideratutako aportazioa.
- Etxebizitza alokairua laguntzeko 164.000 euro mantentzen dira, bi partidatan banatuak.
- Ohikoa den moduan, lankidetzaren proiektuetara bideratuko da sarrera arruntaren %0,79.
- Eskola-Kirola programaren baitan ematen diren diru-laguntzetan 23.000 euroko igoera proposatzen da.
- Hernaniko Udalaren Zerbitzu Sozialak menpeko erakundeari egin beharreko aportazioan aldaketarik ez da aurreikusten.
- Ereñotzu Toki Entitate Txikiari egin beharreko aportazioa udalbatzarrak onartutako kalkulatuaren baitan kalkulatu da.

INBERTSIOAK

Aurrekontuaren eranskinean zerrendatuta daude inbertsio atalean jasotako gastu proposamenak. Inbertsioetan 1.985.350 euro aurreikusten dira. 2016 urteko partida baino txikiagoa da, izan ere 2016ko aurrekontuak Kiroldegiaren inbertsioa jasota baitzuen. Hauek dira proposamen nagusienak:

- 500.000 euro Hernani erabaki prozesuaren ondorioz inbertsioen atalean jaso beharreko proposamenetarako.
- Hirigintzako proiektuak bideratzeko 183.000 euro.
- 153.000 euro, udal aportazioa, Ikastetxeetan inbertsioak egiteko. Honi, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza erantsi behar zaio.
- 100.000 euro, Karabel auzoko urbanizazioaren hasiera,.
- 100.000 euro, emakumeen etxearen lehen konponketa eta egokitzapen lanak egiteko.
- 92.000 euro Kultura alorrean, Biteriko areto nagusia egokitu eta atsegindegiko kurtinak berritzeko.
- 62.500 euro Udal eraikinen atalean, Udal areto nagusia egokitzeko.
- 146.000 euro, Azpiegitura eta urbanizazio lanetarako.
- 255.000 euro Kaleko argikuntza eta ur instalazioetan azpiegitura berritzeko.
- 52.000 euroko igoera Auzokonposta ekimeneratuko: Akarregi estrukturate biltegi berria.

- Azken urteetan ohikoak ditugun inbertsioak mantentzen dira: asfaltado lanak; landa bideak; irisgarritasun plana; urbanizazio lanak; parkeak.
- Eta beste zenbait inbertsio hainbat zerbitzuen funtzionamendu arrunta bermatzeko: informazio prozesuetarako ekipoak, aplikazio informatikoak, funts bibliografikoak...

Inbertsio alorrean, Gobernu Taldeak baditu beste hainbat premia zehaztuak, aurrekontuan sartu ezin izan direnak. Horiekin, 2016ko aurrekontuaren likidazioa itxi eta diruzaintza gerakinaren bidez aurrekontuan txertatzeko asmoa du.

Hernanin, 2016ko azaroaren 9an
Alkatea, Luix Intxauspe Arozamena